AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5209

1887/2014 EBAZPENA, azaroaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Jesús M.ª Larrañaga Garitano jauna Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko zuzendari gerente kargutik kentzen duena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 30ko 64/2014 Ebazpenaren bidez (EHAA, 30. zk., otsailaren 13koa), Jesús M.ª Larrañaga Garitano jauna Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko zuzendari gerente izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jesús M.ª Larrañaga Garitano jauna Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko zuzendari gerente kargutik kentzea eta egindako zerbitzuak eskertzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau 2014ko azaroaren 23tik aurrera sartuko da indarrean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 18a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.